



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko maiatzaren 15a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—10-23/CCO-00011. “Arguedasko Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorrari” buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-23/CCO-00011. “Arguedasko Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorrari” buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko apirilaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Arguedasko Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorrari” buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea “Arguedasko Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorrari” buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

“Arguedasko Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorrari” buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (3. or.).

III. Iritzia, salbuespenekin (4. or.).

IV. Iritziaren oinarria, salbuespenekin (4. or.).

V. Auditoretzako funtsezko gaiak (4. or.).

VI. Azpimarra egiteko paragrafoa (5. or.).

VII. Bestelakoak (6. or.).

VIII. Bestelako lege- eta erregelamendu-errekimenduei buruzko informazioa (7. or.).

IX. Arguedasko Udalaren erantzukizuna (7. or.).

X. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna (8. or.).

XI. Muntako gomendioak (9. or.).

1. gehigarria. Arguedasko Udalaren 2021eko kontu orokorraren laburpena (10. or.).

2. gehigarria. Arguedasko Udala (13. or.).

3. gehigarria. Arau-esparrua (14. or.).

4. gehigarria. Oharrak eta fiskalizazioaren aurkikuntza gehigarriak (15. or.).

4.1 2021eko aurrekontu orokorra (15. or.).

4.2 Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2021-12-31n (16. or.).

4.3 Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak. (17. or.).

4.4 Kudeaketa-alor garrantzitsuak (17. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Lege arautzailearekin eta 2022ko jarduera programarekin bat etorriz, Arguedasko Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu du.

Azterketa lana 2022ko azarotik 2023ko otsailera bitarte egin zuen auditoretza-enpresa kontratatu batek, eta Kontuen Ganberako talde batek —auditoretzako teknikari batek eta auditore batek— gainbegiratu zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan.

Jarduketa horren emaitzak Arguedasko Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Gure lanaren xedea da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

- Ea kontu orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2021eko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, bat etorriz finantza-informazioa dela-eta aplikatzekoa den arau-esparruarekin eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideekin.

- Horrez gain, eta finantza-fiskalizazioaz denaz bezainbatean, Udalak legezkotasuna bete ote duen aztertu da, langileriari eta administrazio-kontratazioari dagokienez. Horri buruzko ondorioak txosten honetan jasota datoz, “Bestelako lege- eta erregelamendu-errekerimenduei buruzko informazioa” atalean.

Lanaren irismena Arguedasko Udalaren 2021. urteko Kontu Orokorra da, zeina honela osatuta baitago Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitatearen Instrukzio Orokorra onesten duen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuaren arabera:

a) Udalaren kontua, honako hauek osatua:

- Aurrekontuaren likidazio-espeditentea.

- Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espeditentea, zeina egoera-balantzeak eta galera-irabazien kontuak osatzen baitute.

- Udalaren kontuaren eranskinak: diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria, baloreen egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.

b) Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Legedia betetzea denaz bezainbatean, norainokoa dagokie txosten honen 4. eranskinean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2021eko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruz behar diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN

Nafarroako Kontuen Ganberak, hari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Arguedasko Udalaren kontu orokorra fiskalizatu du. Kontu orokorrak osagai nagusi hauek ditu: 2021eko abenduaren 31ko balantzea, ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion aurrekontuko likidazioaren egoera-orria.

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako alderdiek izan ditzaketen eraginengatik ez bada, Kontu Orokorrak irudi leiala erakusten du, alderdi esanguratsu guztietan, ondareari eta Udalaren 2021eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-arloko printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

Udalak ez du ondasunen inbentario gaurkotu, zehaztu eta baloraturik; hortaz, ezin izan da ibilgetuaren kontabilitate-saldoaren arrazoikotasunaren ebidentziarik lortu. Saldo hori 32,99 milioi-koa zen 2021eko abenduaren 31n.

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatuko dugu, txosten honetako "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean hain zuzen ere.

Kontu orokorrari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria, eta egokia, jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia salbuespenekin emateko.

V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK

Auditoretzako funtsezko gaiak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko kontu orokorrari egin diogun fiskalizazioan. Gai horiek kontu orokorraren osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorrari buruzko iritzia taxutzera-koan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko gai horien gaineko iritzirik.

Txosten honetako "Salbuespenekin emandako iritziaren oinarria" atalean azaldutako alderdia salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako gorabeheraren berririk ematen.

VI. AZPIMARRA EGITEKO PARAGRAFOA

Taula honetan, 2021eko ekitaldiko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk azaltzen dira, eta aurreko ekitaldikoekin alderatzen:

Adierazleak	2020	2021	Aldea (%)
Aurrezki gordina	908.888	961.066	6
Aurrezki garbia	863.634	915.365	6
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	1.540.891	1.980.311	29
Zor bizia*	226.622	184.324	-19
Zor biziaren ehunekoa diru-sarrera arrunten gainean*	%8	% 6	-24

*Zenbateko doituak txosten honetako 4. gehigarriko 4.2 apartatuan azaltzen den moduan

Udalak aurrezki garbi positiboa aurkezten du; horrek erakusten du baliabide arruntak aski direla funtzionamendu-gastuei eta zama finantzarioari erantzuteko.

Diruzaintza-gerakina ere, etorkizunean aurrekontu-aldaketak finantzatzeko erabiltzen ahal dena, positiboa da eta ehuneko 29 igo da ekitaldian.

Zor bizia jaitsi egin da aurreko ekitaldikoarekin alderatuta eta diru-sarrera arruntetan ehuneko 6 egiten du, ehuneko 110eko muga baino askoz ere gutxiago, alegia.

Azken batean, adierazle ekonomiko-finantzario nagusietan agerian uzten dute Udalak egoera ekonomiko saneatua daukala, bai eta bilakaera positiboa ere.

VII. BESTELAKOAK

• Udalak adierazi digunez, COVID-19aren pandemiak 2021ean ere udal jardueran izan du eragina. Garbiketa zerbitzuak indartu ziren osasun zentroan eta kirol instalazioetan, txertaketa kanpainarako moduluaren alokairua eta alfonbra desinfektatzaileen kontratua mantendu ziren eta aire-arazgailuak eta norbera babesteko ekipo batzuk erosi ziren.

Diru-sarreraren aurrekontuan ez dago “COVID-19a” identifikazioa duen aplikaziorik. Beste alde batetik, “COVID-19a” identifikazioko gastuek 31.712 euro egiten dute, honako xehetasunekin:

COVID-19aren kudeaketa	Zenbatekoa
<i>Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunta</i>	20.480
Osasun zentroaren garbiketa COVID-19rako	11.589
Osasun arloko materiala COVID-19rako	4.172
COVID 19a. Ikastetxearen garbiketarako zerbitzuak	2.373
Aldagela eta NBEak COVID-19rako	1.091
COVID Garbiketa, txukuntze eta beste arlo batzuetako materiala	452
Osasun zentroaren garbiketarako produktuak COVIDerako	218
COVID 19a. Kiroldegiaren garbiketarako produktuak	218
COVID 19a. 0-3 ikastetxearen garbiketarako produktuak	211
COVID Udaletxearen garbiketa eta txukuntzerako produktuak	112
COVID 19a. Kultur Etxearen garbiketa eta txukuntzerako produktuak	44
<i>Transferentzia arruntak</i>	3.586
Laguntza bereziak enpresei COVID-19rako	3.586
<i>Inbertsio errealak</i>	7.646
COVID-19rako inbertsioak ikastetxean arazteko ekipoak (9)	6.142
COVID-19rako inbertsioak 0-3 ikastetxean arazteko ekipoak (1)	1.003
Inbertsioak. COVID 19a. Udaletxea arazteko ekipoak (1)	501
COVID-19rako gastuak, guztira	31.712

• Ohartarazi egin behar dugu 2020ko kontu orokorrari buruzko auditoretzarik ez dela egin, eta, hortaz, 2021eko kontu orokorrean —konparazioa egite aldera— ekitaldi hori dela-eta jasotako informazioari buruzkorik ere ez.

• Betean Auditoría SLP auditoretza-enpresak egin du, Nafarroako Kontuen Ganberarekin sinatutako kontratua betez, auditoretza egin zaion entitatearen kontu orokorrari buruzko fiskalizazioaren landa-lana. Kontuen Ganbera enpresa horrek egindako lanean oinarritu da txosten hau egiteko.

VIII. BESTELAKO LEGE- ETA ERREGELAMENDU-ERREKERIMENDUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Arguedasko Udalaren 2021eko Kontu Orokorrari buruz egin dugun finantza-auditoretzan aurreikusitako norainokoa aintzat hartuta, honako hauetan legezkotasuna bete ote den aztertu dugu:

- Langileen arloa, zeina abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak arautzen baitu gehienbat; horren biez, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina (aurrerantzean LETB) onetsi zen, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Administrazio-kontratazioa, zeina Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak (aurrerantzean, KPFL) arautzen baitu gehienbat.

Egiaztapen hori egiteko, zenbait auditoretza-prozedura erabili ditugu: ezarritako barne-kontrolaren egiaztapena eta auditoretza-lanaren planifikazioan aurreikusitako prozedura analitiko eta substantiboak.

Ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu pentsatzeko ezen legezkotasun-alderdi esanguratsuenak bete direla, aplikatutako prozedurekin, adierazitako alderdi horiei dagokienez. Arlo horretan honako ez betetze hau detektatu da:

- COVID-19aren pandemia dela-eta, aparteko ordainsariak ordaindu zaizkie administrazio araubideko enplegatuei, "esker-sari" kontzeptuarekin, LETBk aurreikusten ez duena, eta ez dago jasota haiek organo eskudunak araututa edo onetsita daudenik. Txosten hau egin den egunean, itzulketa-espeditatea abiarazi da.

IX. ARGUEDASKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Arguedasko Udaleko Kontu-hartzailletza da kontu orokorra egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, finantza-egoera eta emaitzak, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Bermatu egin behar du, halaber, kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Udalaren erantzukizuna da, halaber, beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezartzea, bermatu ahal izateko kontu orokorrean iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik ez dagoela eta egindako jardueran lege-urratzerik ez dagoela.

2021eko kontu orokorra 2022ko abenduaren 22an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

X. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburua da arrazoizko ziurtasun bat lortzea kontu orokorrean iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialik ez egoteari buruz, bai eta gure iritzia duen auditoretza-txosten bat egitea ere.

Arrazoizko ziurtasuna, hain zuzen ere, ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo kontroleko organoen araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen dituenik akats materialak edo ez-betetze adierazgarriak. Akatsak iruzurraren edo erroreen ondorio izan daitezke, edo legea ez betetzearen ondorio, eta akats materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusi ahal bada txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eraginen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo kontroleko organoen araudiarekin bat etorriz, gure iritzi profesionaletan aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu kontu orokorrean, auditoretzako prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzari oinarria emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material bat ez atzemateko arriskua handiagoa da erroreen ondoriozko akats materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Fiskalizatorako beharrezkoa den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolari buruz, inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

- Ebaluatzen dugu ea kontabilitate-politika egokiak aplikatu diren eta arrazoizkoak ote diren kontabilitateko zenbatespenak eta kudeaketa organoak horien arabera emandako informazioa.

- Kontu orokorraren aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea kontu horrek zehatz irudikatzen dituen transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Entitateko gobernu organoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal ditugun barne-kontrolako akats adierazgarriak. Entitateko gobernu organoari jakinarazi zaizkion alderdien artean, zehazten dugu zein izan diren kontu orokorraren fiskalizazioan garrantzi handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzako funtsezko gaiak.

XI. MUNTAKO GOMENDIOAK

Egindako finantza-fiskalizazioaren ondorioz eta langileen nahiz administrazio-kontratazioaren arloetan egindako azterketaren ondorioz, honako gomendio hauek egin behar ditugu:

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotzea eta onestea eta balantzean ageri diren ibilgetu-saldoekin bateratzea, eta kasuko amortizazioak egitea.*
- *Aurrekontua, aurrekontu-likidazioa eta kontu orokorra legez ezarritako epeetan onestea eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa igortzea.*
- *Langileen ordainsariak doitzera araudiak aurreikusten dituen ordainsari-kontzeptuetara.*
- *Baldintza arautzaileak onestea Udalak ematen dituen dirulaguntza guztietan eta, izendunak direnean, dagozkion hitzarmenak sinatzea entitate onuradunekin.*
- *Emandako dirulaguntzen justifikazioari buruzko kontrola hobetzea, halako moduan non hitzarmenak agindutako dokumentazio guztia Erregistro Orokorrean aurkeztea eskatuko baita, egindako azterketak euskarri dokumentala izan dezan, eta betiere dagozkion likidazioa onesteko ebazpena eman.*

Egin dugun fiskalizazio-lanaren ondorioz, fiskalizazioa egin bitarte aurkitutako beste auzi batzuei buruzko beste gomendio batzuk ere egin ditugu (4. eranskinean ageri dira).

José Javier García Logroño auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak alboan ageri den egunean elektronikoki sinatua)

1. GEHIGARRIA. ARGUEDASKO UDALAREN 2021EKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA**2021eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria**

Gastu-aurrekontuaren betetzea Sailkapen ekonomikoa.

Gastuak	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak	Ordainketak	% (%)	% Ordainketak
1. Langileak	830.744	21.902	852.646	830.586	830.439	97	100
2. Gastu arruntak, ondasunak eta zerbitzuak	1.565.069	-126.273	1.438.796	1.219.900	1.129.826	85	93
3. Gastu finantzarioak	5.360	0	5.360	3.402	3.402	63	100
4. Transferentzia arruntak	184.210	0	184.210	135.960	120.487	74	89
5. Kontingentzia funtsa	0	0	0	0	0	0	-
6. Inbertsioak	677.611	597.116	1.274.727	973.988	857.558	76	88
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	-
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	42.400	0	42.400	42.299	42.299	100	100
Guztira	3.305.394	492.745	3.798.139	3.206.135	2.984.010	84	93

Diru-sarreraren aurrekontua betetzea. Sailkapen ekonomikoa.

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubide garbiak	Kobrantzak	% (%)	% Kobrantzak
1. Zuzeneko zergak	647.690	0	647.690	780.877	639.212	121	82
2. Zeharkako zergak	50.000	0	50.000	40.393	37.531	81	93
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	574.672	0	574.672	681.502	620.981	119	91
4. Transferentzia arruntak	1.211.437	0	1.211.437	1.355.843	1.353.133	112	100
5. Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua.	282.595	0	282.595	288.897	216.668	102	75
6. Inbertsio errealen besterentzea	38.000	0	38.000	0	0	0	-
7. Kapital-transferentziak	501.000	0	501.000	486.187	486.187	97	100
8. Finantza-aktiboak	0	492.745	492.745	0	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	-
Guztira	3.305.394	492.745	3.798.139	3.633.698	3.353.712	96	92

2021eko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza

Kontzeptua	2020	2021	Aldea (%)
Aitortutako eskubide garbiak	4.026.788	3.633.698	-10
Aitortutako betebeharrak garbiak	3.745.256	3.206.135	-14
Aurrekontu-emaitza	281.532	427.564	52
Doikuntzak:			
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-314.869	-123.932	-61
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	177.436	171.776	-3
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatzutako gastuak	401.075	264.622	-34
Aurrekontu-emaitza doituia	545.174	740.029	36

2021eko diruzaintzako gerakinaren egoera-horria

Kontzeptua	2020	2021	Aldea (%)
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	456.811	424.269	-7
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	303.253	281.098	-7
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	199.269	196.767	-1
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	145.192	138.713	-4
(+) Ordainketen itzulketak	0	23	-
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-182.012	-183.611	1
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-8.891	-8.720	-2
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-249.590	411.438	65
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	78.576	222.125	183
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	2.674	5.540	107
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	168.289	182.610	9
(-) Ordaintzeko dauden itzulketak	51	1.163	2181
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	0	0	-
(+) Diruzaintzako funts likidoak	1.347.676	1.967.073	46
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	177.436	407	-100
Diruzaintzako gerakina, guztira	1.732.333	1.980.311	14
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	191.442	0	-100
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	0	0	-
Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarakoa	1.540.891	1.980.311	29

2021eko abenduaren 31ko egoera-balantzea

Deskribapena	2020	2021	Deskribapena	2020	2021
A Ibilgetua	32.013.437	32.987.425	A Funts berekiak	33.523.397	34.966.290
1 Ibilgetu materiala	11.707.552	12.210.187	1 Ondarea eta erreserbak	11.481.346	16.825.128*
2 Ibilgetu ez-materiala	917.664	927.611	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	5.344.740	957.664*
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	18.587.401	19.048.383	3 Kapitaleko dirulaguntzak	16.697.312	17.183.499
4 Herri-ondasunak	797.453	797.877	B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0	0
5 Ibilgetu finantzarioa	3.367	3.367	4 Hornidurak	0	0
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	0	C Epe luzeko hartzekodunak	226.623	184.324
6 Deuseztatu beharreko gastuak	0	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	226.623	184.324
C Zirkulatzailea	2.013.432	2.613.039	D Epe laburreko hartzekodunak	276.067	449.355
7 Izakinak	0	0	5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	267.176	440.635
8 Zordunak	665.756	645.966	6 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	8.891	8.720
9 Kontu finantzarioak	1.347.676	1.967.073			
Aktiboa, guztira**	34.026.868	35.600.464	Pasiboa, guztira**	34.026.087	35.599.969

(*) "Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (mozkina)" epigrafeko lehenagoko ekitaldien emaitzei dagokien saldoa "Ondarea eta erreserbak" epigrafera birsailkatu dugu.

(**) Balantzean aktiboaren eta pasiboaren arteko deskoadratzea dago, 495 eurokoa 2021ean eta 781 eurokoa 2020an.

2021eko ekitaldiko emaitzen kontua

Ekitaldiko emaitza arruntak

Deskribapena	2020	2021	Deskribapena	2020	2021
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Azken izakinak	0	0
39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntzak (ekitaldiko hornikuntza)	0	0	39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntza (ekitaldiko hornikuntza)	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	571.300	622.325
61 Langile gastuak	821.477	853.294	71 Jabetza- eta enpresa-errenta	299.267	323.487
62 Finantza-gastuak	3.134	3.402	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	501.800	613.620
63 Zergak	58	57	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	162.136	169.783
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.084.318	1.197.134	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	59.988	2.500
65 Gizarte-prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	1.328.986	1.353.343
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	37.867
67 Transferentzia arruntak	140.956	135.960	78 Bestelako diru-sarrerak	28.141	24.586
68 Kapital-transferentziak	0	0	79 Beren helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
69 Amortizaziorako eta hornidurarako zuzkidurak	0	0			
800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	901.677	957.664	800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0
Guztira	2.951.619	3.147.511		2.951.619	3.147.511

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2020	2021	Deskribapena	2020	2021
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	901.677	957.664
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	12.812	958	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	888.864	956.706	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira	901.677	957.664		901.677	957.664

2. GEHIGARRIA. ARGUEDASKO UDALA

Arguedas Nafarroako Erriberako udala da, 66,43 km² ditu eta 2.310 biztanle zeuzkan 2021eko urtarrilaren 1ean.

Batik bat osoko Bilkurak (11 kide), Tokiko Gobernu Batzarrak eta alkateak osatzen dute udal antolamendua. Zazpi informazio-batzorde ditu; horien artean, Kontuen Batzorde Berezia.

Udalak ez dauka ez erakunde autonomorik, ez sozietate publikorik, ez haren menpeko fundazio publikorik ere.

Errege Bardearen Komunitateko entitate gozamen-kidea da Arguedas. Eta honako mankomunitate hauetan parte hartzen du:

- Erriberako Mankomunitatea, zeinaren bidez ematen baitira hondakinen bilketa eta tratamendurako zerbitzuak eta kale-garbiketako zerbitzua.
- Arguedas, Valtierra, Villafranca, Milagro eta Cadreitako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, herritarrei informazioa, orientazioa eta gizarte-laguntzak bermatu behar diena gizarte-ingurune horretan bizi-kalitatea hobetzeko.
- Ebroko Kirol Mankomunitatea, kirol zerbitzuak emateko sortua.

Zerbitzu mankomunatu horiek guztiek 65.933 euroko gastua ekarri diote Udalari 2021ean.

Udala Nafarroako Erribera garatzeko Estrategietarako Partzuergoko kidea da (EDER Partzuergoa). Honako hauek dira, besteak beste, horren helburuak: jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzea, eskualdearen lehiakortasun-posizioa hobetzea eta eragile ekonomiko eta sozialek eskualdeak dituen arazoak konpontzeko orduan parte-hartze aktiboa izan dezaten aldeztzea. Partzuergoa, estatutuek ezarri bezala, Tuterako Udalari atxikita dago. Arguedasko Udalak 4.544 euroko ekarpena egin zuen 2021ean.

Ondotik doan taulan, Udalak emandako zerbitzuak eta zerbitzu horiek nola eman diren ageri da:

Zerbitzua	Zuzeneko kudea-	Zeharkako kudea-	Mankomunitatea
	keta Udala	keta Zerbitzu kontratua	
Argiteria publikoa		X	
Hilerria	X		
Hondakinen bilketa			X
Bide-garbiketa			X
Edateko uraren etxeetako hornidura	X		
Estolderia	X		
Populazio-guneetarako sarbidea	X		
Hirigintza	X		
Udaltzaingoa	X		
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	X	X*	
Ikastetxe publikoak mantentzea	X		
Berdintasunaren sustapena	X		
Gizarte zerbitzuak			X
Merkataritza ibiltaria	X		
Turismo-jardueraren sustapena	X		

*"La Capilla" kultur eremuaren kudeaketa

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoa.
- 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa, Estatuaren 2021eko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, enplegu publikoaren eskaintzari eta langileen kontratazioari dagokienez.
- 2/2015 Legegintzako Errege-dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamenduzko xedapenak.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamenduzko xedapenak..
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako polizia buruzkoa.
- 6/2020 Foru Legea eta 7/2020 Foru Legea, apirilaren 6koak, presako neurriak onesten dituztenak COVID-19ak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko erregelamenduzko xedapenak ere.
- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.
- 1998ko irailaren 21eko 270. eta 272. foru dekretuak, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari eta kontabilitateari buruzkoak baitira, eta irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretua, Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura onesten duena.
- Udalaren 2021eko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako arauak.

4. GEHIGARRIA. OHARRAK ETA FISKALIZAZIOAREN AURKIKUNTZA GEHIGARRIAK

Ondoren ohar eta argibide osagarri batzuk emanen ditugu, Ganbera honen ustez interesgarriak baitira fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat.

"Muntako gomendioak" atalean jasotakoez gain, orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren beste gomendio batzuk.

4.1 2021EKO AURREKONTU OROKORRA

Arguedasko Udalaren Osoko Bilkurak 2021eko otsailaren 19an eman zion hasierako onespena 2021eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrari. Behin betiko onespena 2021eko apirilaren 19ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO, hemendik aurrera) argitaratu zen.

Alkateak 2020ko abenduaren 31n eman zuen ebazpen baten bidez luzatutako 2020ko ekitaldiko aurrekontua egon zen indarrean aurrekontu hori indarrean sartu zen arte.

Udalaren 2021erako hasierako aurrekontuak 3,31 milioi euroko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspen hasierakoak jasotzen zituen.

Egindako aurrekontu-aldaketan ondorioz, zeinen bidez 492.745 milioi igo baitziren diru-sarrerak eta gastuak (hasierako kredituen ehuneko 15), diru-sarreraren eta gastuen behin betiko aurreikuspenek 3,80 milioi egin zuten.

Aurrekontu-likidazioa

2021eko aurrekontuaren likidazioa alkatearen 2022ko urriaren 6ko dekretu baten bidez onetsi zen, eta kontu orokorra, berriz, Udalak 2022ko abenduaren 22an egindako osoko bilkuran; hain zuzen ere, legez ezarritako epearekiko atzerapen handiarekin bi kasuetan, likidazioa hurren ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen onetsi behar baita, eta kontu orokorra, berriz, irailaren 1a baino lehen. Kontu orokorra 2023ko otsailaren 9an igorri zitzaion Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, horretarako ezarritako epetik kanpo.

Gastuak 3,21 milioioak izan ziren 2021ean —betetze-maila: ehuneko 84—, eta diru-sarrerak 3,63 milioioak —betetze-maila: ehuneko 96—.

Ondotik heldu den taulan, Udalaren gastua eta finantzaketa ehunekotan nola banatu ziren ageri da, bai eta aurreko ekitaldiarekiko konparazioa ere.

Gastuaren izaera	2020	2021	Finantzaketa iturria	2020	2021
Langileak	21	26	Tributu bidezko diru-sarrerak	31	39
Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	30	38	Transferentziak	61	51
Transferentziengatiko gastuak	4	4	Ondare dirusarrerak eta bestelako diru-sarrerak	8	10
Inbertsio errealak	44	31			
Finantza-zama	1	1			
Guztira	100	100	Guztira	100	

Diru-sarreraren iturri nagusia transferentziak eta zerga bidezko diru-sarrerak dira; hurrenez hurren, ehuneko 51 eta ehuneko 39. Urtetik urterako aldaketan aipatzekoa da jasotako transferentzien ekarpen txiki-agoa, batez ere kapital-transferentzien ondoriozko diru-sarrerak nabarmen gutxitzeak ekarrita.

Gastuak honako hauetan metatzen dira: ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak (ehuneko 38) eta langileak (ehuneko 26). Urtetik urterako aldaketan aipatzekoa da inbertsio errealen zama gutxitu dela.

Aurrekontu-likidazioaren adierazleak

Ondoren, 2020ko eta 2021eko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin zerikusia duten adierazle batzuen alderaketa erakusten dugu:

Adierazleak	2020	2021	Aldea (%)
Eskubide aitortuak	4.026.788	3.633.698	-10
Betebehar onartuak	3.745.256	3.206.135	-14
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	2.955.696	3.147.511	6
Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	2.046.808	2.186.445	7
Kapitaleko diru-sarrerak	1.071.092	486.187	-55
Kapitaleko gastuak	1.653.194	973.988	-41
Saldo ez-finantzarioa	323.652	469.862	45
Aurrekontu-emaiza doituak	545.174	740.029	36

Urtetik urterako alderaketa horretatik, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Guztizko diru-sarrerak eta gastuak hurrenez hurren ehuneko 10 eta ehuneko 14 murriztu ziren, kapitaleko diru-sarrerak eta gastuak gutxitzeagatik, inbertsio gutxiago egotearen eta kapital-transferentzia gutxiago jasotzearen ondorioz.
- Dirusarrera eta gastu arruntetan igoerak oso antzekoak dira, zenbaki erlatiboetan.
- Aurrekontu-emaiza doituak ehuneko 36 egin du gora, alegia, 194.855 euro.

4.2 UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2021-12-31N

Taula honetan, 2021eko ekitaldiko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk azaltzen dira, eta aurreko ekitaldikoekin alderatzen:

Adierazleak	2020	2021	Aldea (%)
Aurrezki gordina	908.827	961.066	6
Finantza-zama	45.254	45.701	1
Aurrezki garbia	863.573	915.365	6
Finantza-zamaren indizea	% 2	% 1	-5
Aurrezki gordinek diru-sarrera arruntan gainean zenbat egiten duten %	% 31	% 31	-1
Zor bizia	282.468	240.169	-15
Biztanle bakoitzeko zorra*	122	104	-15
Zorpetze maila (zor bizia/diru-sarrera arruntak)	% 10	% 8	-20
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	1.540.891	1.980.311	29
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubide garbiak)	% 31	% 40	29
Kobratzea zalantzazkoa den zordunen indizea (kobratzea zalantzazkoa den zordunen saldoa/kobratzeko dauden zordunak)*100	% 28	% 30	6

(*) 2021eko urtarrilaren 1eko biztanlerian oinarrituta egin da kalkulua bi ekitaldietan.

Taula horretan alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Aurrezki gordina ehuneko sei igo da sarrera arruntan igoerak gaintitu duelako, zenbaki absolutuetan, funtzionamendu-gastuen igoera. Igoera hori islatzen da, halaber, aurrezki garbian, finantza-zama ia-ia konstantea izateagatik.
- Adierazitako zor biziaren zenbatekoan, kontu orokorrak azaltzen duen moduan, 55.846 euroko abal bat dago, non Udala den entitate abalatu. Abal hori eda konputatu behar toki entitatearen zor gisa. Zenbateko hori deskontatuta, toki entitatearen zor bizia 2021eko ekitaldi amaieran 184.324 eurokoa zen; beraz, hortaz, biztanle bakoitzeko zor bizia 80 eurokoa zen, eta zorpetze-maila, berriz, ehuneko 6koa. Kontuan hartuta doiketa horrek berak 2020ko amaierako zor biziaren datua ukitzen duela, zorraren urtetik urterako gutxitzea ehuneko 19koa da.
- Diruzaintza gerakina 1,98 milioikoa da, joan den ekitaldikoa baino ehuneko 29 handiagoa.

Ondorioz, Arguedasko Udalaren finantza-egoera saneatua da. Aurrezki garbia positiboa da; horrek esan nahi du Udalak behar adina baliabide sortzen dituela funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari aurre egiteko, zorpetze-maila jaitsi egin dela eta Udalak munta handiko diruzaintza-gerakina daukala. Hortaz, hurrengo ekitaldietako aurrekontu-aldaketak finantzatzeko likidezia dauka.

4.3 AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZPIOAK.

COVID-19aren pandemiak ekarritako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoa dela-eta, Europako Batzordearen gomendioei jarraituz, 2020ko urrian Diputatuen Kongresuak aparteko larrialdi bat gertatu zela adierazi zuen, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudian ezarritakoarekin bat. Horrenbestez, 2020-2021 aldirako etenda gelditu ziren aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak, nahiz eta hori ez den eragozpen izan toki entitateen zorpetze-operazioei buruzko baimenen araubidea mantentzeko.

Finantza-iraunkortasunaren printzipioak direla-eta, honako hau adierazi behar dugu:

a) Aurreko apartatuan adierazitakoaren arabera, Udalaren egiazko zor bizia 184.324 eurokoa zen 2021eko abenduaren 31n; zenbateko horrek diru-sarrera arrunten ehuneko 6 egiten du, ehuneko 110eko muga baino askoz ere gutxiago, alegia.

b) Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea araudiak ezarritako 30 eguneko gehienetik behera egon da hiruhileko guztietan:

Hiruhilekoa	Lehenbizikoa	Bigarrena	Hirugarrena	Laugarrena
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	16,13	25,35	18,86	21,49

4.4 KUDEAKETA-ALOR GARRANTZITSUAK

4.4.1 Alderdi orokorrak

- Organo kontu-hartzaileak ez du eragozpenik jarri ekitaldian.
- 2022ko abenduaren 22ko Osoko Bilkuran 2020ko eta 2021eko kontu orokorrak onetsi ziren.
- Oro har, izapidetutako aurrekontu-aldaketak araudiarekin bat datoz, salbu eta 2021eko aurrekontuko bi aldaketa, 2022ko abenduaren 22ko Osoko Bilkuran onetsi baitziren, aurrekontu-ekitaldia bukatu. Halatan, 2021eko ekitaldian aitortutako betebeharrak aurrekontu-kredituak gainditu zituzten lotura-politsetatik bitan, guztira 19.879 eurotan.
- 2021eko abenduaren 31ko balantzean aktiboaren eta pasiboaren arteko deskoadratzea dago, 495 eurokoa.
- Udalaren banku-kontuetan, legezko ordezkariak modu solidarioan balia ditzakete funtsak.
- Ez da jasota ageri Udalaren Lurzoru-ondarea osatzen duten ondasunen inbentarioa, eta horren erregistrorik ere ez da eratu. Hirigintza-hitzarmenen erregistrorik ere ez da eratu.
- Udalak 2004an Sociedad para el Desarrollo de Arguedas, SL delakoa eratu zuen; 2015ean hura desagitea erabaki zuen. Halere, sozietatea Merkataritza-erregistroan agertzen da oraindik, desagitearen, likidazioaren eta azkentzearen eskritura publikoa ez zelako bertan inskribatu erregistratzailearen kalifikazio negatiboagatik, ez baitziren adierazi likidatzaile bakarraren zein bazkide bakarraren inguruabar pertsonalak.

Txosten honetako "Muntako gomendioak" atalean hori dela-eta esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Egin beharrekoak diren aurrekontu-aldaketak garaiz izapidetzea, kredituen lotura juridikoko politzak ez gainditzeko.*
- *Banku-kontuetako funtsak baliatu ahal izateko sinadura bateratua ezartzea.*

- *Udalaren Lurzoru-ondarearen Erregistroa sortzea, bai eta Hirigintza-hitzarmen Administrazioen Erregistroa ere, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginean aurreikusten direnak.*

- *Merkataritza-erregistroan inskribatzea Sociedad para el Desarrollo de Arguedas, SLren desegitea, likidazioa eta azkentzea, behin zuzenduta merkataritza-erregistratzaileak ohartarazitako akatsak.*

4.4.2 Langile gastuak

Udalaren langileria-gastuak 830.586 eurokoak izan ziren (behin betiko kredituen ehuneko 97); hau da, ekitaldiko betebeharrak onartu guztien ehuneko 26. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko bosteko igotza izan dute.

Hurrengo taulan, gastu horiek xehakaturik eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa jaso dira:

Kontzeptu ekonomikoa	ABG, 2020	ABG, 2021	2021/2020 aldea	Aldea (%), 2021-2020
Funtzionarioen oinarrizko ordainsariak	259.306	271.647	12.341	5
Funtzionarioen ordainsari osagarriak	76.063	77.174	1.111	1
Aldi baterako langile lan-kontratudunen oinarrizko ordainsariak	150.271	166.728	16.457	11
Bestelako langileak	1.440	2.580	1.140	79
Gizarte kuotak	299.107	305.625	6.518	2
Bestelako gizarte gastuak.	4.913	6.831	1.918	39
Guztira	791.100	830.586	39.486	5

Plantilla organikoa

Udalaren plantilla organikoaren behin betiko onespena 2021eko ekainaren 7ko NAO n argitaratu zen.

Hona plantilla organikoko lanpostuak 2020ko eta 2021eko ekitaldiak ixtean:

Langileak	2020	2021
Plantillako langileak	11	11
Beteta	5	4
Hutsik	6	7
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	55	64
Bete diren lanpostu hutsak	6	6
Bete diren lanpostu hutsak (%)	100	86
Bete gabeko lanpostu hutsak	0	1
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	0	14
Aldi baterako kontratazioa (%)	55	60

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

- Plantilla organikoko sei lanpostu aldi baterako beteta daude; beraz, behin-behinekotasun tasa ehuneko 60koa da.

- Plantilla organikoko administrari laguntzailearen lanpostu batek 'berariazko osagarri' bat dauka, baina LETBk ez du aurreikusten ordainsari-kontzeptu hori.

- Foru-gaikuntza behar ez duten plantillako bederatzita lanpostuetatik¹, bostetan sarbidea da oposizio-lehiaketa eta bitan oposizio-lehiaketa murriztua, baina kasu bakar batean ere ez da justifikatzen araudiak horretarako eskatzen dituen inguruabarrak biltzen direnik.

¹ Foru-gaikuntza behar duten lanpostuak dira idazkariarena eta kontu-hartzailearena.

Lan-eskaintza publikoa, hautapen prozesuak eta aldi baterako kontratazioa

2018tik 2021era bitarteko aldian, Udalak ez du inongo lan-eskaintza publikorik onetsi.

2021ean langileen aldi baterako kontratazio batzuk egin dira. Horien lagin bat aztertu dugu eta detektatu dugu aldi baterako bi kontratazio egin direla, haietako bat lanaldi osokoa, baina berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituen prozedurarik erabili gabe.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik heldu diren egonkortze-prozesuei dagokienez, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak 2022an egindako deialdian sartu dira idazkaritzako ea kontu-hartzailetzako lanpostuak. Beste alde batetik, aipatu legearen babesean ere, Udalak 2022an bi lanposturako,—bat ofizial administraria-diruzainarena eta beste bat administrari laguntzailearena— merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko.

Langile-gastuaren egiaztapenak

Abuztuko eta urriko nominen lagin bat aztertu dugu, hamar pertsonen gainekoa; guztira 17.156 euro egiten dute, honako xehetasun hauen arabera:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	9.722
Bosturtekoak	264
Gradua	1.614
Bateraezintasuneko osagarria	692
Arrisku bereziko osagarria	276
Mailako osagarria	641
Lanaldiaren luzapeneko osagarria	336
Osagarri iragankorra	152
Lanpostuko osagarria	909
Familia-laguntza alabak	74
Aparteko orduak	2.475
Guztira	17.156

Oro har, Udaleko langileek behar bezala jaso dituzte aztertutako ordainsari-kontzeptuak, baina ez betetze bat detektatu dugu, txosten honetako “Bestelako lege- eta erregelamendu-errekerimenduei buruzko informazioa” atalean aipatzen dena.

Txosten honetako “Muntako gomendioak” atalean hori dela-eta esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Langileen kontratazioan behin-behinekotasuna ahalik gehien murriztea, behar diren deialdiak eginez eta deituta dauden hautatzeko prozesuak bukaeraraino eramanez.*

- *Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamenduan aurreikusitako sarbideak aplikatzea, prozedura murriztuak eta oposizio-lehiaketa mugatuz araudian horretarako aurreikusten diren inguruabarrak biltzen direla egiaztatzen den kasuetarako.*

4.4.3 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 1,22 milioikoak izan ziren, ekitaldian onartutako betebeharrak guztien ehuneko 38, eta behin betiko kredituen ehuneko 85 gauzatu dira.

Ondotik doan taulan, ondasun eta zerbitzuen gastu arrunten kontzeptu nagusiak eta aurreko ekitaldi-arekiko alderaketa jaso ditugu:

Deskribapena	ABG, 2020	ABG, 2021	Aldea	Aldea (%) 2021-2020
0-3 ikastetxea, kudeaketa zerbitzua	118.935	114.208	-4.727	-4
EUTEaren mantentze-lanak eta ustiapena	71.610	77.621	6.011	8
Argiteria publikorako energia elektrikoa	42.778	64.132	21.354	50
Energia elektrikoa azpiegiturak parke naturala	40.778	55.992	15.214	37
Kultur jardueren programazioa	11.834	36.699	24.865	210
Publizitatea eta propaganda	22.918	35.554	12.636	55
Kale-garbitzaren zerbitzua-EEZB-lazaretoa	22.207	33.015	10.808	49
Kiroldegiko garbiketa eta atezaina	32.670	32.670	0	0
Herri-lurretako azpiegituren kontserbazioa	29.974	30.140	166	1

Guztizko gastua ehuneko 9 igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Urteik urterako konparazioa egi-tean, nabarmentzekoa da gastuaren igoera kultur jardueretan, 2020an bereziki txikia izan baitzen COVID-19aren pandemiagatik, eta energia elektrikoan, izan duen prezio igoeragatik.

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, gastuak justifikatuta, onetsita, kontu har-tuta eta egokiro kontabilizatuta eta ordainduta daudela. Hala eta guztiz ere, ondoko alderdiak adierazi nahi ditugu:

- EUTE-Edateko Ura Tratatzeke Estazioaren ustiapen eta mantentze lanetarako zerbitzuaren gastua ordaintzen zaio 2007an egin zen kontratu baten adjudikazio-hartzaileari, gehienez ere lau urteko aldirako (luzapenak barne), Valtierrako Udalarekiko hitzarmen batekin bat. Hitzarmenaren arabera, zerbitzua kon-tratatzea Valtierrako Udalari dagokio.

- Publizitatean eta propagandan badira gastu batzuk, zeinen izaerari eta ekitaldian zehar egindako gas-tuari erreparatuta esan baitaiteke –kontuan hartuta hurrengo 48 hilabeteetarako aurreikusitako gastua– gainditu egiten dutela munta txikiko kontratuen araubide berezia baliatu ahal izateko muga, Kontratu Pu-blikoei buruzko Foru Legearen 81. artikulua egungo idazketarekin bat.

- Udalak kontratu-euskarri egokirik gabeko gastuak aitortu ditu, erretirodunen zentroak erabiltzen duen tabernarako kontratuaren gehieneko indarraldia bukatuta baitzegoen. Udalak emandako informazioaren arabera, kontratuaren indarraldia 2017an amaitu zen eta 2021eko gastuek 6.050 euro egin zuten. 2023ko urtarrilean berriz esleitu da.

Gure gomendioak:

- Valtierrako Udala premiatzea, EUTEaren ustiapen eta mantentze lanetarako zerbitzuaren esleipena berriz egin dezan.

- Horniduretako eta segidako prestazioko zerbitzuetako gastuen kasuan, zenbateko txikiko kontratue-tarako araubide berezia erabiltzea, bakar-bakarrik, kontratuaren balio zenbatetsiak, hurrengo 48 hilabe-teetarako aurreikusitako gastua aintzat harturik, 15.000 eurotik gora egiten ez badu, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak berriaz ezarritako muga baita.

4.4.4 Inbertsioak

973.988 milioi euroko inbertsioak egin ziren, 2021eko betebeharrak onartuen ehuneko 30, alegia. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 41 jaitsi dira.

Honakoak izan ziren Udalak 2021ean egindako inbertsio nagusiak:

Deskribapena	ABG, 2021
Soropil artifizialaren hornidura eta instalazioa	312.208
Sektorizazioko jarduketak-kred. trans.	186.989
Ikastetxea kon. inb. (komunak aldatzea)	149.718
Pumptrack eraikitzea	55.468
LED argiak jartzea futbol zelaiko dorreetan	32.880

Lehendabiziko hiru partidetan sartutako gastuen lagin bat aztertu dugu, eta atera dugun ondorioa da gastuak oro har justifikatuta, onetsita, kontu-hartzaitzak aztertuta eta behar bezala kontabilizatuta eta ordainduta daudela.

4.4.5 Kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa

2021eko honako lizitazio hauek berrikusi ditugu, bai eta haien adjudikazioa eta gastuaren betetze-maila ere:

Kontratua	Prozedura	Lizitatuak kopurua	Lizitazio-zenbatekoa*	Adjudikazio-prezioa*	% Baja
Sorospen zerbitzuaren kontratazioa Arguedasko udal igerilekuan	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	5	19.500	18.180	7
Laguntza tekniko, Arguedasko kirol instalazioak handitzeko proiektu teknikoaren prestatzearen ingurukoa	Simplifikatua	2	54.000	50.250	7
Arguedasko Sancho Ramírez ikastetxe publikoan beheko eta lehen solairuetako komunak berritzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	1	126.219	115.364	9
Argiteria publikoaren berritzea 'Mando, Silo, Cañeco, Construcción k. eta Sarasate p.'	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	11	91.068	71.056	22

BEZa kanpo

Oro har, kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa, bai eta exekuzioa ere, kontratuei buruzko legeriari jarraituz izapidetu dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaitzak aztertuta, justifikatuta, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude; halere, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Kontratazio mahaien aktak ez dira argitaratu.
- Sorospen zerbitzuaren kontratazioari dagokionez, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak, ekainaren 23ko 68-2021 erabakiaren bidez, adjudikazioa baliogabetu zuen, eskaintzen balorazioa aski motibatuta ez egoteagatik; horren ondorioz adjudikazioa berriro egin zen. Geroago, azaroaren 3ko 107-2021 erabakiaren bidez, adjudikazio berri hori baliogabetu zuen, bai eta adjudikatzeko prozedura ere, berriz ere eskaintzen balorazioa aski motibatuta ez egoteagatik eta haietako batean izandako akats batengatik.

Gure gomendioak:

- *Udalak egindako lizitazio guztien gaineko informazio guztia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea, Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearekin bat.*
- *Pleguetan, lizitatuak eskaintzak baloratzeko erabiliko diren azpi-irizpideak eta puntuazioak zehaztea eta kontratazio mahaien aktetan zehaztea egindako balorazioen motibazioa.*

4.4.6 Transferentzia arruntetako gastuak

Transferentzia arruntetarako betebeharrak onartuak 135.960 euro egin zuten 2021eko ekitaldian, gastu osoaren ehuneko lau, alegia. Kapitulu honetako gastua ehuneko lau jaitsi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Transferentzia arruntetako gastuak osatzen dituzten kontzeptu nagusiak honako hauek dira:

Aurrekontu-partida	ABG, 2020	ABG, 2021	Aldea	2021/2020 aldea (%)
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	50.094	52.933	2.839	6
Merkataritzako kanpainak eta beste batzuk	7.930	13.229	5.299	67
Muskaria Kirol Kluberako dirulaguntza	6.000	12.208	6.208	103
12-16 urtekoen guraso elkarterako dirulaguntza Topagune foroa	10.000	12.068	2.068	21
Castildetierra Musika Eskolarako dirulaguntza	10.500	10.734	234	2

Taulako partidek osatutako lagin bat aztertu dugu. Egin den azterketatik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Oro har, Udalak ez ditu onesten dirulaguntzen oinarri arautzaileak, ez ditu haien baldintzak ezartzen emateko erabakian eta ez du hitzarmenik sinatzen dirulaguntza izendunen entitate onuradunekin; gaiaren gaineko araudi orokor bat besterik ez dauka, aurrekontua betetzeko oinarrietan sartuta.

- Merkataritzari laguntzeko kanpainaren kasuan, baldintza arautzaile batzuk argitaratu ziren, Udalarena ez den web orri batean, baina ez dago jasota horiek organo eskudunak onetsi izana.

- Aztertutako hiru dirulaguntza izendunetatik bakar batean ere ez dago kontu-hartzaitzaren txostenik.

- Muskaria Kirol Kluberako eta 12-16 urtekoen Guraso Elkarterako dirulaguntzetan ere ez da agertzen entitate onuradunak eskatutako egiaztagiri guztiak aurkeztu dituenik.

- Muskaria Kirol Kluberako dirulaguntzan ez dago organo eskudunak likidaziorako onetsitako erabakirik..

Gai horri buruzko gomendioak txosten honetako "Muntako gomendioak" atalean adierazi dira.

4.4.7 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Udalaren tributu bidezko diru-sarrerak, 2021ean, 1,50 milioikoak izan dira, diru-sareren guztien ehuneko 33, alegia. Haietan nabarmentzekoak dira tasa eta prezio publikoen bidezko diru-sarrerak (ehuneko 45), zeinen ehuneko 60 ur horniduraren zerbitzukoak baitira, eta lurraren gaineko kontribuzioa (ehuneko 24).

Hurrengo taulan, horien xehakapena eta aurreko ekitaldiarekiko aldea jaso ditugu:

Kontzeptua	AEG 2020	AEG 2021	Guzt. gain. % AEG 2021	2021/2020 aldea (%)
Zuzeneko zergak	610.271	780.877	52	28
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	50.813	50.801	3	0
Hiri-lurren gaineko kontribuzioa	307.076	307.324	20	0
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	159.192	166.857	11	5
Hiri-lurren balioaren igoera	0	37.867	3	-
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	90.246	215.102	14	138
Ehiza-barruti pribatuaren aprobetxamendua	2.944	2.926	0	-1
Zeharkako zergak	57.314	40.393	3	-30
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	57.314	40.393	3	-30
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	621.507	681.502	45	10
Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak, guztira	1.289.092	1.502.772	100	17

Tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarretako eskubide onartuak 2021ean ehuneko 17 igo dira aurreko ekitaldikoekin alderatuta, batez ere jarduera ekonomikoen gaineko zerga berrikusteko jarduketak egin zirelako, dagozkion likidazioekin Udalaren alde, aurreko zergaldietarako, eta ondoriozko premia-mendu-errekarguekin, eragina dutenak tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarretako kapituluaren bilakaeran.

Urtetik urterako konparazioak, era berean, erakusten du hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa berriz hartu dela, 2020an eten baitzen orduan zegoen ziurgabetasun juridikoagatik.

Zerga-tasak, bai eta 2021ean aplikatutako tasa eta prezio publikoak ere, Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsi ziren, bakarrik adierazita aurreko ekitaldian aplikatuekiko aldaketak.

Ondotik datorren taulan ikusten denez, zerga-tasak Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak (aurrerantzean TOFL) ezartzen dituen mugen barruan daude.

Kontzeptua	Udala, 2021	2/1995 FL
Lurraren gaineko kontribuzioa	0,25 ²	0,10 – 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	25	8 - 25
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4,65	2 - 5

2021ean indarrean egon den balorazio-ponentzia 2021ean onetsi zen. Hala ere, 2021an beste balorazio-ponentzia bat izapidetzen ari zen, txosten hau egiteko unean oraindik bukatu gabe zegoena.

Zerga bidezko diru-sarrera guztien lagin bat berrikusi dugu. Horren bidez egiaztatu dugu ezen, orokorrean, zergen likidazioa eta haien diru-bilketa ordenantzei eta kasuko arauari jarraituz egin direla. Dena den, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Kontu-hartzaitzak ez ditu errolda guztiak fiskalizatzen haiek onetsi aurretik.
- Tokiko Gobernu Batzarrak ez du onetsi jarduera ekonomikoen gaineko zergaren errolda, aurrekontua betetzeko oinarrietan kontrakoa ezartzen bada ere.
- Udalak tributuen kontrolerako azken plana 2016-2019 aldirako onetsi zuen.

Gure gomendioak:

- *Balorazio-ponentzia berriaren izapidea eta onespina bukatzea.*
- *Erroldak betiere haien onespeneren aurretik fiskalizatzea.*
- *Aldizkako tributuen erroldak onestea betetzeko oinarrietan ezarritakoarekin bat.*
- *Tributuen kontrolerako plan bat onestea, Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 137. artikuluan ezarritakoarekin bat.*
- *Zerga-tasa, tasa eta prezio publikoen arloko gardentasuna hobetzea, bandoen bidez argitaratuz ekitaldian aplikatuko diren guztiak, ez bakarrik aldatetarik.*

4.4.8 Transferentzia arruntengatiko diru-sarrerak

Kapitulu honetan 1,36 milioirengatiko eskubideak kontabilizatu dira, Udalak ekitaldian onartutako eskubideen ehuneko 37 egiten dutenak. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsetik dator horien ehuneko 61.

Jarraian, 2021eko ekitaldian jasotako transferentzia arrunt nagusiak jaso ditugu:

Aurrekontu-aplikazioak	AEG 2020	AEG 2021	Aldea 2021/2020	Aldea (%)
Toki ogasunen funtsean parte hartzea	810.430	824.878	14.448	2
Errege Bardeako Komunitatearen dirulaguntza	200.000	200.000	0	0
Montepioen kostuaren dirulaguntza	122.452	134.607	12.155	10
0-3 urtekoen ikastetxearen funtzionamendurako dirulaguntza	146.792	82.987	-63.805	-43
JEZren konpentsazioaren dirulaguntza	0	46.696	46.696	-
Zinegotzien lansarietarako dirulaguntza	33.954	34.056	102	0

Transferentzia arrunt bidezko diru-sarrerak ehuneko bi jaitsi dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Jaitsiera esanguratsuenak dira 0-3 urtekoen ikastetxearen funtzionamendurako dirulaguntzaren murrizketa, dirulaguntza hori arautzen duen modulu-sistemaren aplikazioagatik, eta ekitaldi honetan ez jasotzea 2020an salbuespenez jaso ziren COVID funtsak. Beste alde batetik, igoera nagusia sortzen da jarduera ekonomikoen gaineko zergak, Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat aldatzearen ondorioz, ekarritako diru-bilketa txikiagoa konpentsatzeko jaso den transferentziagatik.

² Landa-lurreko ondasunetarako, Udalak ehuneko 0,80ko tasa aplikatzen du, horretarako baliatuz Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatu eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak gaurkotzen dituen abenduaren 29ko 20/2005 Foru Legearen xedapen iragankor bakarrik ezarritako araubide iragankorra.

Taulan agertzen diren aurrekontu-aplikazioetatik hasierako biek osatutako lagin bat aztertu dugu eta ondorioztatu dugu aplikatzekoa den araudiarekin bat izapidetu, kudeatu eta kontabilizatu direla oro har.

4.4.9. Ondare bidezko diru-sarrerak

Ondare bidezko diru-sarrerak 288.897 eurokoak izan ziren, Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 8, alegia. Haietatik ia guztiak heldu dira herri-lurretako aprobetxamendutik (ehuneko 66) eta udalerrian dagoen naturaren parke baterako lurzoruaren erabilera lagatzetik (ehuneko 32).

Hurrengo taulan, kapitulu honetako diru-sarreraren aurrekontu-aplikazio nagusiak jaso ditugu:

Aurrekontu-aplikazioak	AEG 2020	AEG 2021	Aldea 2021/2020	Aldea (%),
Lurzoruaren erabilera lagatzea: naturaren parkea eta beste batzuk	91.201	91.187	-14	0
Enkanteen diru-sarrerak: Raso eta herri-lurrak	81.907	80.295	-1.612	-2
Herri-lurretako lurzatiaren aprobetxamendua	68.403	69.231	829	1
Herri-lurretako larreen aprobetxamendua	30.138	33.489	3.351	11

Ondare bidezko diru-sarrerak ehuneko 4 igo dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Lehendabiziko hiru aplikazioetan jasotako diru-sarreraren lagin bat aztertu dugu, eta ondorioa da aplikatzekoa den araudiarekin bat izapidetu, kudeatu eta kontabilizatu direla oro har ondare bidezko diru-sarrerak.

4.4.10. Kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak

Kapitulu honetan 486.187 euro egiten duten eskubideak kontabilizatu dira, Udalak ekitaldian onartutako eskubideen ehuneko 13, alegia. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 55 jaitsi dira.

Jasotako kapital-transferentzia nagusiak honako hauek izan ziren:

Aurrekontu-aplikazioak	AEG 2021
Errege Bardeako Komunitatea kapitaleko dirulaguntza	200.000
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza inbertsioa ikastetxeko komunak berritzea	149.546
Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza lanak	85.786
Nafarroako Gobernu-Feader dirulaguntza efizientzia energetikoa ikastetxean (argiteria)	40.000

Aurrekontu-aplikazio horiek osatutako lagin bat aztertu dugu, eta ondorioa da kapitaleko dirulaguntzetatik heldu diren diru-sarrerak aplikatzekoa den araudiarekin bat izapidetu eta kudeatu direla oro har. Hala ere, Udalak 26.453 euroko eskubideak onartu dituen ekitaldi honetan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza bati dagozkionak, zeina 2020an osorik kobratu baitzen; hortaz, horren eskubideak aipatu ekitaldian onartu beharrekoak ziren.

Gure gomendioa da transferentzien eta dirulaguntzen bidezko eskubideak kobratzen diren unean bertan onartzea edo diru-laguntza eman duen entitateak betebeharra onartu izanaren froga dagoenean.

4.4.11 Aurrekontuetatik kanpoko saldoa

474.- BEZarengatiko erakunde publiko zordunak kontuaren saldoa ekitaldiaren itxieran 121.654 eurokoa da; haietatik 50.590 heldu dira 2019. urtetik. 2021eko ekitaldiko BEZaren likidazioek guztira 9.521 euroko konpentsazioa sortu dute.

Gure gomendioa da dagozkion zenbatekoen itzulketa eskatzea preskripzioa baino lehen.